





March	200,00	290,00	420,50	609,73	884,10	1281,95	1858,82
April	250,00	225,00	202,50	182,25	164,03	147,62	132,86
May	300,00	435,00	630,75	914,59	1326,15	1922,92	2788,23
June	350,00	437,50	546,88	683,59	854,49	1068,12	1335,14
July	400,00	500,00	625,00	781,25	976,56	1220,70	1525,88
August	450,00	562,50	703,13	878,91	1098,63	1373,29	1716,61
September	500,00	625,00	781,25	976,56	1220,70	1525,88	1907,35
October	550,00	687,50	859,38	1074,22	1342,77	1678,47	2098,08
November	600,00	750,00	937,50	1171,88	1464,84	1831,05	2288,82
December	650,00	812,50	1015,63	1269,53	1586,91	1983,64	2479,55



FINANTZA-INBERTSIOEN BATZORDEAREN TXOSTENA, FINANTZA-INBERTSIOEN POLITIKAREN BETETZE- MAILARI BURUZ – 2020ko EKITALDIA

	Position 1	Position 2	Position 3	Position 4	Position 5	Position 6	Position 7	Position 8	Position 9	Position 10	Position 11	Position 12
January	100,00	125,00	156,25	195,31	244,14	305,18	381,47	476,84	596,05	745,06	931,32	1164,15
February	150,00	202,50	273,38	369,06	498,23	672,61	908,02	1225,82	1532,28	1915,35	2394,18	2992,73
March	200,00	290,00	420,50	609,73	884,10	1281,95	1858,82	2695,29	3369,12	4211,40	5264,24	6580,31
April	250,00	225,00	202,50	182,25	164,03	147,62	132,86	119,57	149,47	186,83	233,54	291,93
May	300,00	435,00	630,75	914,59	1326,15	1922,92	2788,23	4042,94	5053,67	6317,09	7896,37	9870,46
June	350,00	437,50	546,88	683,59	854,49	1068,12	1335,14	1668,93	2086,16	2607,70	3259,63	4074,54
July	400,00	500,00	625,00	781,25	976,56	1220,70	1525,88	1907,35	2384,19	2980,23	3725,29	4656,61
August	450,00	562,50	703,13	878,91	1098,63	1373,29	1716,61	2145,77	2682,21	3352,76	4190,95	5238,69
September	500,00	625,00	781,25	976,56	1220,70	1525,88	1907,35	2384,19	2980,23	3725,29	4656,61	5820,77
October	550,00	687,50	859,38	1074,22	1342,77	1678,47	2098,08	2622,60	3278,26	4097,82	5122,27	6402,84
November	600,00	750,00	937,50	1171,88	1464,84	1831,05	2288,82	2861,02	3576,28	4470,35	5587,94	6984,92
December	650,00	812,50	1015,63	1269,53	1586,91	1983,64	2479,55	3099,44	3874,30	4842,88	6053,60	7567,00



Mutualiako Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen Mutualiako Finantza-inbertsioen Politika 2020ko uztailaren 17ko bilkuran, eta horrela bete zen “Irabazi-asmorik gabeko erakundeek balore-merkatuan aldi baterako finantza-inbertsioak egiteari buruzko jokabide-kodearen” (aurrerantzean, JK) 2.6 atalean xedatutakoa. Kode hori Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren 2019ko otsailaren 20ko Erabakiaren bidez onetsi zen (2019ko martxoaren 5eko BOEn argitaratu zen), Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Gainera, aipatutako jokabide-kodeak, hirugarren atalean, “Kodearen jarraipena”, irabazi-asmorik gabeko erakundeek gobernu-organismoen betebeharra ezartzen du, eta erakunde horien artean dago “MUTUALIA”, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zenbakiko mutua (aurrerantzean, Mutualia edo Erakundea). Erakundeok urteko txosten zehatz eta argi bat aurkezteko betebeharra dute, Jokabide Kode horren bigarren (1) eta hirugarren (2) ataletan jasotako printzipioen eta gomendioen betetze-mailari buruz, eta txosten hori bazkideen eta, oro har, jendearen eskura jarri behar dute, erakundearen webgunean argitaratuz.

Horretarako, MUTUALIAren Jokabide Kodearen eta Finantza Inbertsioen Politikaren jarraipen-txosten hau egin da 2020ko ekitaldiko aldi baterako inbertsioei buruz, eta Erakundearen Zuzendaritza Batzordeari proposatu zaio onar dezan 2021eko uztailaren 6ko bileran, erakundearen webgunean argitaratu aurretik, datorren uztailaren 16ko Ohiko Batzar Nagusiak onar dezan.

1.- Jokabide Kodeko bigarren ataleko printzipioak eta gomendioak betetzea.

1.1.- MUTUALIAk giza baliabideak eta baliabide materialak ditu, bai eta Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duten mutuei aplikatu beharreko araudiak baimendutako finantza-tresnetan egiten dituen inbertsioak hautatzeko eta kudeatzeko sistema bat ere (1993/1995 Errege Dekretuak onetsitako Lankidetzan Erregelamenduaren 30. art.), egindako inbertsioen bolumenera eta izaerara egokituak eta proportzionalak.

Finantza-inbertsioen kudeaketa Finantza-inbertsioen Batzordeak egiten du eta batzorde horretan erakundeko hiru pertsona daude (zuzendari kudeatzailea, Administrazio-zerbitzuen eta Eragiketen zuzendaria eta Administrazio zuzendaria), eta aldiro biltzen dira, gutxienez urtean lautan.



- 1.2.- Inbertsio finantzarioei buruz erabakitzen duten entitateko pertsonak ezagutza teknikoak eta esperientzia nahikoa dituzte, eta, gainera, kanpoko aholkularitza profesional egokia dute, gaitasun profesionalekiko aholkulari independenteek emanda, eta ez dute Mutualiarekin interes-gatazkarik ez merkataritza-aholkulariak ez hango profesionalek.
- 1.3.- Mutualiak barne-auditoretzako arloa du langile kualifikatuekin, eta haren eginkizunen artean dago erakundearen arrisku garrantzitsuen inguruko finantza-informazioaren prozesua eta barne-kontrolako sistemak ezagutzea eta berrikustea, barne kontrola barne, bere inbertsio-politika betetzen dela egiaztatzeko, erakundearen Zuzendaritza Batzordeko Auditoretza Batzordearen mendekotasun organiko eta funtzionalarekin.
- 1.4. Mutualiak bere Zuzendaritza Batzordeak onartutako finantza-inbertsioen politika bat du, eta JKren Bigarren 2.6 atalean aurreikusitakoari erantzuten dio.

Politika hori arautzen duten printzipioak egindako finantza-inbertsio guztietara zabaldu ditugu, eta, horretarako, honako adierazle hauek hartu ditugu kontuan:

- Berehalako likidezia, epe laburreko likidezia eta likidezia orokorra
- Zorpetzea
- Cash-flowa
- Segurtasuna
- Errentagarritasuna
- Dibertsifikazioa
- Eragiketa espekulatibo kopurua

Jarraian, finantza-adierazle garrantzitsuenak daude laburbilduta, eta horietako batzuk erakundearen urteko kontuetako S040 eta S098 ereduetan ere zehatzago jasota daude.

ADIERAZLEAK	MUTUALIA 2. ZK.
GIZARTE SEGURANTZAREN KUDEAKETA	
EPE LABURREKO LIKIDEZIA	1,4886
GUTXIENEO SEGURTASUNA	BBB
ERRENTAGARRITASUNA (diruzaintzaren guztizkoa)	% 1,60
ERAGIKETA ESPEKULATIBO KOP.	BAT ERE EZ
ONDARE HISTORIKOAREN KUDEAKETA	
GUTXIENEO SEGURTASUNA	BBB
ERRENTAGARRITASUNA (diruzaintzaren guztizkoa)	% 1,575
ERAGIKETA ESPEKULATIBO KOP.	BAT ERE EZ

2.- Jokabide Kodeko hirugarren ataleko printzipioak eta gomendioak betetzea.

“2020ko EKITALDIKO FINANTZA-INBERTSIOEN POLITIKAREN BETETZE-MAILARI BURUZKO FINANTZA-INBERTSIOEN BATZORDEAREN TXOSTEN” honen xedea helburu hori lortzea da, eta Zuzendaritza Batzordeak 2021eko uztailaren 6an egindako bileran onartu beharko du, erakundearen webgunean argitaratu aurretik, 2021eko uztailaren 16ko Ohiko Batzar Nagusiak onar dezan.

Bilbon, 2021eko uztailaren 6an.

Finantza-inbertsioen batzordea

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN 2021/07/6KO AKORDIOA

Akordioa.- “Zuzendaritza Batzordeak aho batez ONARTU DU finantza-inbertsioen BATZORDEAREN TXOSTENA, finantza-inbertsioen politikaren betetze-mailari buruzkoa, 2020ko ekitaldikoa, dataren egunean egina. Txostena akta honen 1. eranskin gisa erantsi da, eta 2021eko uztailaren 16ko Ohiko Batzar Nagusiari aurkeztuko zaio, onar dezan, erakundearen webgunean argitaratu aurretik, erabaki hau gehitu ondoren.



mutualia

